

NEKAZARIAK HASERRE

I

Milla bederatzirehun
larogei ta hamabi
apirilan zortzian
hasi naiz kantari
moldatu nahi dizkiot
bertso bat edo bi
hil zorian daukagun
nekazaritzari,
gai horretan badago (bis)
zer esana ugari.

II

Gaztetatik probatu
dut nekazaritza
horregatik nahi nuen
gai horretaz mintza
sarritan alperrikan
hamaika ekintza
gure etsai haundina
genuen ekaitza,
orain berriz Europak (bis)
dakar zorigaitza

III

Iñork ez du babesten
gaur nekazaria
bururik ezin jaso
hau da komeria
ezin sorturik gabiltz
jateko ogia
Bruselasetik jartzen
digute neurria,
horrek ekarriko du (bis)
gure agonía.

IV

Esne ta haragiak
zaizkigu ugaldú
Europatik nahi dute
onuntza bialdu
gure etorkizuna
behar dute galdu
horrela jokatzek
zentzurik bai al du?
lehenengo bertakoak (bis)
behar dira saldu.

V

Nahiko aldapatsua
da Euskadi guztia
zail daukagu
maila iristia
agintariak hortaz
ohartzen ezia
hemen gertatzen dena
ez al da tristia,
zortzian saldu behar (bis)
hamabi kostia.

VI

Millaka agintari
beste hainbat lege
baina ezer ez dago
hemen gure alde
zapaldu nahi gaituzte
suabe suabe
ez badugu jokatzek
tinko ta trebe,
laister gara Euskadin (bis)
baserririk gabe.

VII

Nahiz eta hartu dugun
hainbat pazientzi
ez ditzagula gure
galtzak behera jeitsi
gogor behar diogu
geureari eutsi
damutu ez gaitezen
bihar edo etzi,
orain beharko dira
hortzak erakutsi.

VIII

Nahiz eta egon asko
sufritzen ohituta
ezin gintezke bizi
belaunikatuta
errespeto pixka bat
merezi dugu ta
hortzak erakustera
gaude behartuta,
gogor joka dezagun (bis)
guztiok batuta

MARTZELINO «ARGIÑANE»
